

5. gaia: “**ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN**  
**ANTOLAKETA”**

**1.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ANTOLATZEKO AHALMENA.**

- Orain arte Administrazioa, hiritarren serbitzura dagoen erakunde izugarri handi bat bezala definitu dugu, bere helburu nagusia interés orokorra lortzea delarik.
- Izaera edo nortasun juridiko propioa duen erakundea bada ere, bere funtzioak organu administratiboen bitartez betetzen ditu, hau da, honen barnean lan egiten duten pertsonen bitartez betetzen ditu bere funtzioak.
- Administrazioa bakarra bada ere, organu anitzez dago osatua eta hauek pertsonak gidatzen dituzte. Gainera, Espainiar sistema aztertzen badugu, lurralde irizpidea erabiltzen badugu, administrazio ezberdinak izango ditugu: zentrala, erkidegoetakoa, probintziala eta lokala.
- Administrazioak koherentzia bat izan dezan eta modu bateratu batean lan egin dezan, legegileak honi barne-antolatzekeo tresna batzuk eman dizkio. Tresna hauen bitartez, administrazioan lan egiten duten persona guztiak koordinatuta lan egingo dute.
- Administrazioan dauden organuek euren antolakuntza eta barne egitura ezartzeko aukera izango dute, bertan lan egiten duten persona fisiko ezberdinei funtzio konkretuak emanez beti interes orokorra lortzeko.
- Barne antolaketa hau ezartzeko ahalmenari “barne antolakuntza ahalmena” edo “potestad de autoorganización” deitzen zaio eta zenbait erregela jarraitu beharko ditu:
  - Administrazioaren barnean dauden organu ezberdinak koordinatuta egon beharko dira, jerarkia irizpide baten atzetik.
  - Organu bakoitzak bere funtzioak zehaztuta eta mugatuta izango ditu.
  - Aurrekontu propioa izango du organu bakoitzak.
  - Organu berrien eraketa zein daudenen ezabaketa, arauen bitartez egingo da soilik (legeak eta erregelamenduak).

## **2.- ORGANU ADMINISTRATIBOAK. SAILKAPENAK.**

Esan dugun moduan, Administrazioa ente bezala barrutik begiratzen badugu, organu ezberdinez osatutako erakunde oso handia dela ikus dezakegu. Organu administratibo ezberdinek eskuduntza etdo konpetentzia ezberdinak gauzatuko dituzte eta beti euren jarduera Administrazioaren jarduera izango da, hau da, bere izenean jarduten dute.

Organu ezberdinak modu anitzetan sailka ditzazkegu, segun eta zein irizpide erabiltzen dugun. Hauek dira organuak sailkatzeko irizpide erabilienak eta ondorioz, organu mota ezberdinak:

- Euren osaketaren arabera: “pertsona bakarrekoak” (unipersonales) edo “kolegiatuak” (colegiados). Lehenengo kasuan, titularitatea pertsona bakar bati dagokio (adb. Ministroa) eta bigarrenen kasuan, titulartasuna horizontalean antolatutako pertsona multzo bati egokitzen zaio titulartasuna, denek batera organu horren borondatea isladatzen dutelarik (adb. Udaletxeko Plenua).
- Euren funtzioen arabera: “aktiboak” eta “erreflexiboak”. Lehenengoek erabakiak hartzen dituzte eta hauek errealitatean gauzatzen dituzte, exekutatu egiten dituzte. Bigarrenek aldiz, erabaki egiten dute baina ez dituzte euren erabakiak zuzenean eurek gauzatzen, beste organu batek egingo du hau.